Para estudiar la presencia actual de las las dos visiones presentes en la Eslovaquia democrática se han realizado encuestas y entrevistas. Concretamente una entrevista con el embajador eslovaco en Madrid Juraj Tomaga, para comprender la visión institucional. Y se ha realizado una encuesta anónima a ciudadanos eslovacos para comparar la visión institucional con la de ciudadanos no formados en el tema.

Tras este análisis, como respuesta a la hipótesis de estudio, se considera lo siguiente: El nacionalismo eslovaco y su relación con el pasado de la Segunda Guerra Mundial afecta directamente a la manera que realiza la memoria de la comunidad judía. Pero afecta por dos razones:

1-Hay una particular: ambas visiones del nacionalismo eslovaco, la nacional-católica y nacional-europea, tienen que enfrentarse a la realidad de la Segunda Guerra Mundial; tanto el gobierno como la población fue cómplice en el genocidio de la comunidad judía del país. Los nacional-católicos buscan señalar el Estado Eslovaco de 1939 a 1945 como el antecesor de la República actual. Se enfrentan a que el gobierno, fascista, apoyado por los nazis, de voluntad propia comenzará una opresión sistemática de las poblaciones consideradas no deseadas por el régimen.

Ensalzar este estado a finales del siglo XX y principios del siglo XXI sin caer en la negación del Holocausto implica negar ante todo la culpa del Estado Eslovaco. Para negar la culpa se debe de evitar que se muestren pruebas. Pero la visión nacional-liberal también tiene un problema con este período. No se considera conectada al Estado Eslovaco, pero sí al pueblo eslovaco como comunidad histórica. Para negar al Estado Eslovaco, esta visión ensalza la resistencia que había contra este, extendiéndose a toda la población. El problema que surge es que para completar este ensalzado heroico de la población y el SNP, se evita que se hable del antisemitismo y apoyo de la población al exterminio de los judíos. Se ensalza solo lo bueno: los Justos entre las Naciones y la lucha antifascista, y se niega lo malo. Se está creando una narrativa que oculta la verdad histórica e impide una memoria veraz y justa de la comunidad judía.

2-Pero también hay una razón general: toda construcción nacional se basa en una versión oficial que busca crear una narrativa. Cuando existe una narrativa paralela no oficial de otro grupo que pueda chocar con la oficial, el estado prioriza el mantenimiento ante todo del constructo narrativo.

Esto porque una narrativa histórica limpia, sin puntos oscuros no tratados, trae mayor conexión nacional y hace más fácil a los ciudadanos sentirse vinculados con la nación. Se prefiere una narrativa que sea incorrecta históricamente pero que aporte cohesión nacional antes que una veraz y con matices, pero que pueda poner en duda el papel histórico de la nación.

Como se puede ver en los casos actuales de Japón o Turquía, muchos países deciden silenciar cualquier culpa histórica para mantener esa cohesión. Otros, como Inglaterra, España, EE. UU. o Francia incluyen los pasajes más oscuros de su historia de una manera indecisa y sin afrontar su culpabilidad. Admitir culpa de un genocidio o exterminio es algo difícil y que dentro de la narrativa nacional puede crear dudas que agita toda la construcción.

Cada visión nacional eslovaca tiene sus problemas y razones por las que busca evitar un recuerdo completo del Holocausto y la comunidad judía. Pero los métodos y el hecho de buscar blanquear el pasado nacional es un elemento típico dentro de cualquier idea nacionalista, sea moderada o radica.

3.4.- Friuli, Europa, planeta tierra. Derechos lingüísticos, autonomía y desarrollo entre visiones, reivindicaciones y políticas

Marco Stolfo

Friuli, Europa, Planeta Tierra Derechos lingüísticos, autonomía y desarrollo entre visiones, reivindicaciones y políticas

Friuli es una tierra donde historicamentre se hablan cuatro idiomas: el friulano, el esloveno, el alemán y el italiano. En este marco la situación y la posición de la lengua friulana tienen una plaza particular, porqué es un idioma que existe – como idioma autóctono – solo aquì en Friuli (su difusión en otra parte es el resultado de la emigración friulana del último siglo y medio) y porqué es un idioma que está en condicciones de minorización. Friuli ha sido también hasta hace pocos decenios una región subdesarrollada y marginal.

Durante el siglo XX su perfil multicultural y plurilingüe, sus condicciones socioeconómicas y la especificidad de la lengua friulana han sido tema de elaboraciones teóricas y de reivendicaciones y movilizaciones politicas y sociales.
Esta propeusta tiene en cuenta los caracteres fundamentales de estas elaboraciones, reivendicaciones y movilizaciones y quiere discutir el caso friulano en el marco de las nacionalidades y de las minorías nacionales y lingüísticas de Europa.

El objectivo es una investigación sobre las reivindicaciones de reconocimiento de identidad, de autogobierno y de protección y garantías de los derechos lingüísticos y sus relaciones y sus conexiones con el marco istitucional regional (la 'Regione autonoma Friuli-Venezia Giulia', que no es solo el Friuli y tampoco es todo el Friuli), con la normativa de normalización lingüística y con las políticas lingüísticas por el friulano desarrolladas en los últimos veinte años.

Con una orientación interdisciplinaria se quiere poner en evidencia estas caracteristicas, tanto la positivas y innovadoras como la contradicciones, con sus causas y sus perspectivas.

3.5.- Decisive moments: probing the role of unilateral proclamations of sovereignty in secession processes (Dublin 1916, Barcelona 2017)

Àlvar Hervalejo

Decisive moments: probing the role of unilateral proclamations of sovereignty in secession processes (Dublin 1916, Barcelona 2017).

Secession or state-building processes are by no means immune to the fluctuation of historical time. The tenacious opposition between those 'decades where nothing happens' and those 'weeks where decades happen' inevitably leaves us looking for those decisive moments that seem to have the power to shift scenarios, to open or close cycles and to define eras. Unilateral proclamations of sovereignty, issued by people, groups or institutions seeking to create a new state, aim to embody such 'moments of truth' within secession processes. Historically, these have come in a variety of forms and contexts, and have equally produced diverse outcomes. This paper looks into what precisely is the role played by such proclamations in an effort to produce a deeper understading of the strategic conditions that bring about the creation of a new state. Its approach pivots around two of these events: the 1916 Proclamation of the Irish Republic made in the context of the Easter Rising, and the 2017 Declaration of Catalan Independence issued at the zenith of the still recent 'Catalan Process'.

4.- Kulturaren eta nazio eraikuntzaren arteko hartu emanak / The relationship between culture and nation-building

4.1.- Sarrera. Introduction

Ane Izagirre

Kulturaren eta nazio eraikuntzaren arteko hartu-emanak: Sarrera

Zer litzateke estaturik gabeko nazionalismoez, ikuspegi eta praktika kulturak partekatuko ez balituzte? Erantzuna zehatz bat ematera baino, hausnarketarako gonbita egitea helburu duen galdera horrek agerian du kulturak nazio eraikuntzan duen adierazgarritasuna. Kultura aipatzean komunitate baten ezaugarri material, espiritual, afektibo, intelektual eta linguistikoez ari garela esan genezake. Aldi berean, kultura bakoitzak, une eta kokaleku jakin batean, komunitate horren orainaz ez ezik, ordura arte egindako ibilbide kolektiboaz ere hitz egiten du.

Nazio batek iraun nahi badu, ezinbestekoa izango zaio komunitateari, eta beraz, kulturari, berezkoa zaion eraldaketarako joerari eustea. Izan ere, kulturak eta hura osatzen duten ideiek eta praktikek zentzua dute komunitateak bere egiten dituen bitartean, erreferentziazko balio gisa aitortzen dituenean. Bestela, mugimendua gelditzen bada (hausnarketa, birdefinizioa, “beti egin dena” birpentsatzea), kultura folklore, karikatura edota estereotipo bihurtzeko arriskuan egon daiteke.

Eraldaketa hori, ordea, ez egitura sozialen, testuinguru politiko eta ekonomiko zein botere harremanetatik at gertatzen. Aitzitik, kultura bera da boterea borrokatzen den espazioetako bat, mundu-ikuskera bat adierazten duelako. Bere bidez, estatuaren, nazioaren, gizartearen antolaketaren, komunitatearen, herritartasunaren eta bizi-moduen esanahiak eraikitzen dira; azken finean, bizitza soziala zeharkatzen duten elementu ugariren zentzua mamitzen da espazio kulturalean.

Hausnarketa hauek zuzenean edo zeharka aipatu dira, besteak beste, “Kulturaren eta nazio eraikuntzaren arteko hartu-emanak” izenburupean eginiko mahai inguruan. Alaia Cachenaut antropologian doktoregaiak Uztaritzeko Kaskaroten kasua aztertu du, testuinguru horretan neskek parte-hartzeko egin duten prozesua hizpide hartuta. Generoaren araberako botere-desoreka eta rol-banaketa praktika kulturaletan nola egituratzen diren erakutsi du, tradizioaren birdefinizioak eta antolaketa-moduen eraldaketak sortzen dituzten tentsioak azalduz. Ikerlariak agerian utzi bezala, “sukaldean gertatzen denak” ahalbidetzen du kanpora begira egiten dena, eta ez, Uztaritzeko neskek ez dute “beste zerbait” nahi; Kaskarotetan mutilen baldintza berdinetan hartu nahi dute parte; erabakietatik hasi, eta lehen lerroan dantza egiteraino.

Kulturaren eta nazio eraikuntzaren arteko harremana beste ikuspegi batetik landu du Elena Casiriain Iturrira antropologian doktoregaiak, mugen auzia ardatz hartuta. Zenbaitek esango lukete mugek izaera material eta fisikoa dutela, ezinbestekoak direla “marra” horiek barne hartzen duten komunitatea definitzeko. Mugen aitortza izango da beraz, nazio-estatua egikaritzeko baldintzetako bat. Baina, zer egin mugek marraztutako lurraldeak herritarren nazio ikuspegiarekin bat egiten ez dutenean? Bada, Izpegin emana diote erantzuna. Mugen izaera arbitrarioa aintzat hartuz, desegingarriak bezain eraikigarriak direla erakutsi digu Elena Casiriain Iturriria antropologian doktoregaiak. Aurkezpenaren izenburu zehatzak azaltzen du mugaren birdefiniziorako bidea: “Muga ukatu, (des)eraiki, nazioa egin: Izpegiko besten kasua”. Bere ekarpenei jarraikiz, muga mozketarako ez ezik josketarako ere baliabide izan daiteke. Euskal Herria banatzen duten mugek egindako mozketek egina dute oinazea, josketari ekin beharko zaio nazio eraikuntzaren bidean.

Azkenik, lurralde bateko parte-hartze politikoa ere komunitatearen ezaugarri kulturalen parte dela erakutsi dute Imanol Negral Bravo eta Maria Sarasola Fernandez doktoregaiek, “Mugaz bi aldetako euskal gazteen politizazioa. Azterketa kuantitatibo konparatibo bat” eta “Mugi muga. Politikan jarduteko dinamikak, motibazioak eta helburuak” izenburua izan duten aurkezpenetan, hurrenez hurren. Bi aurkezpenak “Mugi muga: Euskal Herriko gazteak saretzen” ikerketatik eratorriak dira. Bertan metodologia kuantitatibo eta kualitatiboa uztartu dituzte. Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko gazteen politizazioa aztertu dute, datuen gurutzaketak eta eztabaida-taldeen bidezko diskurtso-analisia baliatuz. Aurkezpenek aukera eman dute bi lurraldeetako gazteen ikuspegiak, kezkak, motibazioak eta jarduteko moduak ezagutzeko.

Hauexek izan dira Subiranotasun Emergenteak kongresuaren baitan antolatutako kulturaren eta nazio eraikuntzaren arteko hartu-emanen inguruko mahai-inguruan jorratutako gai nagusiak. Kulturak ere naziogintza egiten du, kulturaren bidez eraikitzen baitira komunitatea, harremanak eta elkarkidetza. Gizarte bat ezagutzeko modu bat da haren kultura ezagutzea: bertan agertzen dira balio eta ikuspegi partekatuak, baina baita tentsioak, gatazkak eta borrokak ere. Sarrera hasi dugun bezala galera batekin amaitzeko: zer da, bada, kulturaren eta nazio eraikuntzaren arteko harremana, komunitate batek bere burua ulertu, eztabaidatu eta etorkizunerantz proiektatzeko duen moduaren etengabeko eztabaida ez bada?

4.2.- Neskak Uztaritzeko Kaskarotetan dantzan. Parte hartze kulturalaren burujabe izateko prozesu bat aztergai

Alaia Cachenaut

Neskak Uztaritzeko Kaskarotetan dantzan. Parte hartze kulturalaren burujabe izateko prozesu bat aztergai

2023ko urtea aitzin, Lapurdin kokatua den Uztaritze herriko neskek, ihauterietako kaskarotetan ez zuten dantzari izateko eskubiderik. Aldiz, kaskarotetan parte hartzen zuten bazkarietan laguntza ekarriz, begirale edo musikari izanez, edo, haien etxekoekin kaskarot taldeari harrera prestatuz.

Parte hartze kulturalaren genero bereizketa azaltzeko eta neskek bizitako bazterketa zilegitzeko, tradizioaren babesteko beharra aipatu zen. Argudioek, praktika kulturalaren historiari aipua egiten zioten, baita ezer ez aldatzeko beharra ere, Unesco-ren 2003ko ondare immaterialaren babesteko hitzarmenaren ezagupena lortzeko. Bestalde, genero ikuspundutik, bereizketaren mantentzea mutikoak dantza taldean atxikitzeko medio bat bezala aurkeztua zen. Generoa eta ondarearen inguruko diskurtsoetatik at, herriko belaunaldien arteko harremanak kondutan hartu nahi nituzke, jendarte aldaketari lotutako botere harremanak aztertzeko.

Euskal dantzaren transmisio gune nagusiak elkarte moduan antolatuak direla kondutan hartuz, elkarte barneko egituraketari eta antolaketari interesatuko naiz. Herriko biztanle eta dantza taldeko eragile batzuek, tresna politiko desberdinen bidez 25 urtez kaskaroten genero bereizketa gelditzeko aldarrikatu zuten. Hala ere, 2022ko urtea itxaron izan behar zuten, bozka baten bidez denek dantzatzeko eskubidea lor dezaten. Erabaki honen ondotik, gazteek, elkarte barneko gobernantza berezi bat esperimentatzea erabaki zuten, hautuak erabaki gune ezberdinetan eztabaidatuz.

Uztaritzeko kaskaroten kasuaren bitartez, gobernantzaren gaia aztertuko dut feminismoaren ikuspundutik. Dantza taldearen erabaki guneetan izan belaunaldi aldaketaren ondorioz, gobernantza mota berri bat nola esperimentatu den aipatuko dut, kultura bizitzan parte hartzeko eskubidea, hots kultura eskubideak, bakoitzaren eta kolektiboaren burujabetasunari nola lotzen diren miatzeko.

4.3.- Imaginando soberanía(s): nacionalismo y música popular en Aragón

Andoni Caballero Calderón y Patricia Biesa Marco

Soberanía, emancipación e identidad nacional a través de la geopolítica popular musical en el caso aragonés

Es de interés el estudio de la modernidad política y sus artefactos, entre ellos, la nación y su binomio más recurrente, el Estado.A menudo semánticamente intercambiables, parecería que nuestra forma de comprender la asociación humana y la legitimidad que de ella emana se reduce exclusivamente en estos términos, en la idea wilsoniana de que, para cada nación, un Estado (y viceversa).

Este paradigma dejaría atrás o ignoraría las fuerzas y agencias que no se articulan en torno a las prerrogativas de los Estados, pero que sin duda adquieren y proyectan su propia forma de entender la soberanía y retienen y reproducen su propia particularidad identitaria. Si bien Benedict Anderson adelantaría la transformación de la idea de soberanía a la luz del leviatán moderno y sus necesidades, aquí nos preguntamos por aquellas nociones de soberanía que transitan los discursos y producciones culturales de la periferia.

En concreto, tomando como referencia la dicotomía que establece Antonio Gramsci entre cultura como 'forma de vida' y cultura como 'elementos pintorescos', y desde la perspectiva de la geopolítica popular se pretenden analizar las representaciones de soberanía política a través de fenómenos que, en ocasiones, se denominan de forma despectiva 'folklorismos', pero que contienen una forma subversiva de performar las identidades nacionales.

En los últimos años las obras musicales de Rodrigo Cuevas (Asturias), Dulzaro o Delameseta (Castilla) o Juanjo Bona (Aragón), han retomado un enfoque local para expresar diferentes soberanías periféricas, lejos del apoyo de un aparato estatal propio.

En un momento de auge de propuestas centralistas y reaccionarias; pero, también de interpretaciones diversas de la identidad nacional española y de las identidades nacionales periféricas, en esta propuesta de comunicación, nos preguntamos acerca de la evolución cualitativa de las narrativas históricas y la concepción de soberanía a través de la geopolítica popular musical en las obras de José Antonio Labordeta, La Ronda de Boltaña, Ixo Rai! y, enlazando con la actualidad, Juanjo Bona. Se pretende analizar los imaginarios nacionales presentes en artefactos culturales de la cotidianeidad que configuran y a la vez son reflejo de las diferentes formas de entender las identidades nacionales en Aragón.

4.4.- Muga ukatu, (des)eraiki, nazioa egin: Izpegiko besten kasua

Elena Casiriain Iturriria

Muga ukatu, (des)eraiki, nazioa egin: Izpegiko besten kasua

Frantziar eta Espainiar Estatuan bereizten dituen lerroaren inguruan ibiliz Euskal Herrian, biztanleenganik laster jasotzen den diskurtsoa da, mugan, kontrola sistematikoa kendu denetik 1990 hamarkadan, mugaz-gaindiko harremanak ttipituz joan direla. Euskaldunen kohesioa mugaren alde batean eta bestean galeran litzatekeelako sentimendua partekatua da. Estatuen arteko muga batek hainbat eragin ditu mugaldeko biztanleentzat: honen bizitzeko era bat gaur egun, bere ukatzea da. Batez ere, bestaren bidez ukatzen da muga, euskal nazio bat aldarrikatzeko asmoz. Izpegiko besten kasua aztertuz (Baigorri eta Erratzuko gazteek antolatutako besta bat, Izpegiko lepoan), landa lanean oinarrituz antropologiaren ikuspegitik, « muga », « mugaz-gaindikoa » eta « nazio » terminoen inguruko artikulazioa lantzea da helburua: nola eta zertan (des)egiten ote dute muga biztanleek bestaren bidez? Muga ukatzea, nazioaren eraikitzearen sinonimoa ote da? « Mugaz-gaindikoa » eta « nazio eraikuntza », norabide berak ote dira? Mugaren ukatzeko molde anitz bada, besta egitea hauetariko bat denean. Zer ekartzen du bilgune horren sortzeak nazioari?

Hainbat kolektiboek, gaurko mugen egoera salatzeko urratsa egiten dute, ikerketa, biztanle, eragile eta artisten artean. Mugaren iruditegi berriak garatzeko asmoa dute ikuspegi kritiko batetatik, mugak ez ditezen baztertzaileak izan. Mugak, Estatuen mapatik baztertua du euskal nazioa, beste Estaturik gabeko nazioak bezala. Alta, baliteke, mugaren ukatzeko, bestaren hautua eginez, euskal nazioa, mugaren iruditegi berriak, inklusiboagoak, eraikitzen saiatzen dela: muga jasangarriak ba ote dira Estaturik gabeko nazioentzat? Zertan muga eta lurraldearen eredu berritzaileak ekartzeko gaitasuna ote dute, justuki haien zapalkuntzaren sinboloa den horri eutsiz? Kontraesan hori deseraikitzeko asmoa da, mugaren ikuspegi kritiko eta dekoloniala hartuz, nazioari egiten duena aztertzeko asmoz.

4.5.- Mugaz bi aldeetako euskal gazteen politizazioa. Azterketa kuantitatibo konparatibo bat

Galder Sierra, Eki Etxeberria Asier Blas, Luis Emaldi eta Imanol Negral

Mugaz bi aldeetako euskal gazteen politizazioa. Azterketa kuantitatibo konparatibo bat.

Aurkezpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) diruz lagundutako “Mugi muga. Euskal Herriko gazteak saretzen” ikerketa-proiektuaren baitan kokatzen da. Egitasmo horrek mugaren bi aldeetakoeuskal gazteen politizazio prozesuak aztertzen ditu, ‘politizazioa’ era zabalean ulertuta. Zehazki,ikerketa horren atal kuantitatiboaren ondorio nagusiak aurkeztuko dira bertan.

Euskal Herri mailako horrelako azterketa kuantitatiboak egiteko zailtasun nagusia datu iturriekinlotuta egon ohi da, oso gutxi direlarik eskala horretan egiten diren ikerketak. Hutsune hori gainditzeko asmoarekin, Naziometroak azken urteetan egindako inkestak erabili dira, hogeita hamar urte azpiko inkestatuetan arreta jarriz. Azterketa bost atal nagusietan banatu da, atal bakoitzaren barruan aldagai ezberdinak identifikatuz: a) gazteen egoera sozio-demografikoa (ikasketa maila, lan egoera, euskararen ezagutza...), b) gazteen egoeraren balorazioa (kezkarako gai nagusiak...), c) gazteen identifikazio politikoak (euskal nazionalismoarekiko, espainiar/nazionalismoarekiko, feminismoarekiko...), d) lurralde antolaketaren inguruko lehentasunak (erabakitze eskubidearen edota independentziaren inguruko jarrera...), eta e) hauen hauteskunde-portaera. Atal bakoitzaren barruan kokatutako aldagai ezberdinak generoaren arabera eta lurraldearen arabera aztertu dira; azken honi dagokionez, Gipuzkoa, Ipar Euskal Herria eta Euskal Herri osoko gazteak alderatuz.

Jasotako emaitzek muga administratibo-politikoek euskal gazteen politizazio prozesuetan duten eragina ulertzen lagunduko digute, batzuen eta besteen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak identifikatuz.

4.6.- Mugi muga. Politikan jarduteko dinamikak, motibazioak eta helburuak

Alaia Cachenaut, Eki Etxebarria, Elena Casiriain, Galder Sierra, Iker Iraola, Iñaki Zaldua, Jon Azkune Joseba Permach, Maddi Alberdi, Maria Sarasola, Mila Amurrio, Nerea Blanco, Onintza Odriozola

Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Ideiak 25* diru laguntzaz baliaturik, Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko gazte abertzale eta politizatuen inguruko ikerketa kualitatiboa abiatu dugu Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), Université Toulouse Jean Jaurès eta Euskal Garapen Kontseiluko ikertzaile talde batek.

Gure ikerketaren helburua da Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko gazteek adierazten dituzten politizazio elementuak aztertzea, ulertzea eta teoria mailan kokatzea. Horretarako, diskurtso analisian oinarritu dugu ikerketa. Aipatutako hiru herrialdeetan zazpi eztabaida talde egin ditugu eta bertako diskurtsoak aztertu. Eztabaida talde horietako parte hartzaileen profilek behar besteko heterogeneotasuna izan duten arren, ahalegin berezia egin dugu emakumeen diskurtsoak aztertzen.

Atera dugun ondoriotako bat da familia, kultura, komunitatea edo koiuntura bezalako elementuek ardazten dutela, oro har, parte hartzaileen politikan jarduteko grina. Era berean, gazte horien politizazio bideak, eta prozesu horietan eraikitzen dituzten harreman afektiboak ere aztertzen ari gara.

5.- Burujabetzarako antolakuntza estrategiak

5.1.- Sarrera. Introduction

Maddi Alberdi

Burujabetzarako antolakuntza estrategiak

Emergent sovereignties izenburupean gai ugari landu dira kongresuan. Burujabetza kongresuaren oinarrizko gaia izan da, hainbat ikuspegitatik landu dena. Jarraian aurkeztuko dugun komunikazio-mahaiak oinarrizko gai horri heldu dio, ezinbesteko galderatik: burujabetza bai, baina nola eta nondik? Tresnak, begiradak, eta, hein batean, estrategiak garrantzi handia dute helburuak lortzerako orduan. Bide horretan, *Burujabetzarako antolakuntza estratregiak* izenburupean bildu dira Ander Vizán Amoros, Gorka Mercero Altzugarai, Nerea Aramendia eta Xabier Renteria-Uriarte.

Lehenengo komunikazioan Ander Vizánek erabakitzeko eskubidearen eta autodeterminazio eskubidearen arteko tentsioak mahaigaineratu ditu. Doktorego-tesian ikertutakoaren emaitzak azaldu ditu kongresuan: *Autodeterminaziotik erabakitzeko eskubidera? Autodeterminazioaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko diskurtsoak Eskozian, Katalunian eta Euskal Herrian* izenburupean. Euskal Herria, Katalunia eta Eskozia azterketa eremu gisa hartu eta alderatu ditu, eta, horretarako, alderdi politiko subiranistak, gizarte mugimenduak eta fundazioak elkarrizketatu ditu. Ondorio gisa, Vizánek, berrikuntza demokratikoaren adibide modura, erabakitzeko eskubidearen teorien artean bi talde bereizten ditu: erabakitzeko eskubide eraldatzaile edo erradikala eta erabakitzeko eskubide eufemistiko edo estrategiko-diskurtsiboa.
Bigarrenean Gorka Mercerok *Euskal Herria berrirudikatuz: naziotik komunitate artatsura* komunikazioa aurkeztu du. Gaur egungo euskal nazioak proposatzen duen euskalduntasuna problematizatu eta *komunitate artatsu* baten kontzeptua proposatzen du. Horren bidez, Euskal Herriaren barne-aniztasuna oinarri hartuko duen iruditeria politiko eta linguistiko berrituaren beharra mahaigaineratzen du, ezberdina denarekin elkarbizitzeko aukera gisa. Azken finean, kontzeptu horrek nazioaren baitan nongotasun eta erantzukizun modu berriak irudikatzeko aukera eskaintzen duela azaltzen du.

Hirugarrena Nerea Aramendia izan da. Doktorego-tesian oinarrituta Hernani Burujaberen kasua aurkeztu du, ondorengo izenburuarekin: *Intersekzionalitatearen eta gobernugintza publiko-komunitarioaren arteko heuristika arakatzen: Hernani burujabeko kasua aztergai.* Kasu azterketa horretarako beharrezkoa den analisirako marko analitikoa aurkeztu du, gobernugintza publiko-komunitarioaren eta intersekzionalitatearen arteko harreman heuristikoa. Harreman horren arteko elkarrizketan hiru dimentsio aurkitu ditu: eraldaketa soziala, ahalduntze prozesuak eta gatazkaren ulerkera. Hori horrela, aurrerapen teorikoak aurkeztu eta Hernani Burujabeko kasurako hainbat galdera mahaigaineratzeko baliatu du aurkezpena.

Azkenik, Xabier Renteriak burujabetzaren inguruko galdera ugari mahaigaineratu ditu, kontzeptua beraren ulerkera zalantzan jartzeraino. *Burujabeak. EH behetik gora iraultzen* izenburua jarri dio komunikazioari. Burujabetzaren eta subiranotasunaren arteko ezberdintasunez eta benetako erabakimenaz aritu da, komunitarismoaz, auzolanaz. Euskal Herria behetik gora eraikitzeko proposamenak dituzten taldeak aurkeztu ditu kongresuan.

Hein batean, denek ere, burujabetzara bidean estrategia ezberdinak proposatzen dituzte: kontzeptuen erabilera estrategikoak (autodeterminazioa eta erabakitzeko eskubidea), nazioa komunitate gisa irudikatzeko moduak (komunitate artatsu kontzeptua), gobernantzarako estrategiak eta tresnak (gobernantza publiko komunitarioa eta intersekzionalitatea), eta burujabetza lortzeko bideak (behetik gora eraikitzeko proposamenak).

5.2.- Autodeterminaziotik erabakitzeko eskubidera? Autodeterminazioaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko diskurtsoak Eskozian, Katalunian eta Euskal Herrian

Ander Vizán

Autodeterminaziotik erabakitzeko eskubidera?Autodeterminazioaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko diskurtsoak Eskozian, Katalunian eta Euskal Herrian

Komunikazio honek ”From self-determination to right to decide? Autodeterminazioaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko diskurtsoak Eskozian, Ratalunian eta Euskal Herrian”izenburu duen doktorego tesiaren emaitzen aurkezpena du helburu.

Autodeterminazio eskubidearen muga doktrinal eta diskurtsiboen aurreansortutako erabakitzeko eskubidearenkontzeptua aztertzen du ikerketa honek, autodeterminazioa eta erabakitzeko eskubidearen arteko harremanetan sakonduz. Hartu-eman horiek burujabetza, lurraldetasuna eta demokraziaren kontzeptuei nola eragiten dieten aztertzen da. Horretarako, Euskal Herriko, Kataluniako eta Eskoziako eragile subiranista eta nazionalisten diskurtsoen analisi kritikoa gauzatu da, hiru herrialdeetako eragileek euren etorkizun politikoaz aritzean zer kontzeptu nagusitzen den ikusi aldera eta horrek dituen ondorioak aztertuz. Diskurtsoen analisikritikoaren eta arrazoitze teorikoaren bidez, erabakitzeko eskubidearen sailkapen berria proposatzen da, erabakitzeko eskubidearen teorien artean bi talde bereiziz: batetik, erabakitzeko eskubide eraldatzaile edo erradikala, erabakitzeko eskubidea erreminta erradikal-demokratiko gisa garatzen duena eta, bestetik, erabakitzeko eskubide eufemistiko edo estrategiko-diskurtsiboa, autodeterminazioa eta erabakitzeko eskubidearen kontzeptuak parekatzen dituena.

5.3.- Munizipalismoa, lurralde burujabetza eta trantsizio ekosozialista. Hernani Burujabe deituriko esperimentua

Andoni Egia Olaizola

Muniziaplismoa, lurralde burujabetza eta trantsizio ekosozialista Hernani Burujabe deiturikoexperimentua

Munizipalismo berria deiturikoa hainbat esparru geografikotan hedatu da, ekonomia eta politika tokiko esparruan demokratizatzeko saiakera gisa, kontraesan kapitalista garaikideei erantzunez.

Hala ere, muga politiko, ekonomiko eta eskalakoak topatu ditu, eta horrek eragotzi dio lurralde eraldaketarako alternatibak finkatzen. Lan honetan Lurralde Burujabetzaren kontzeptua aurkezten da, alternatiba postkapitalista erradikalak gauzatzeko bidean aurrera egiteko bide-orria eskaintzen duen tresna analitiko gisa. Proposamen hau gauzatzen ari den Hernaniko (Euskal Herria) esperientzia kasu-azterketa gisa hartuta, artikuluan, ekintza-ikerketaren bidez, kontzeptu horren potentzialtasunak eta mugak aztertzen dira. Lurralde urujabetzalangintza Publiko-Ekonomiko-Komunitarioaren (PEK) bidez gauzatzen da, eta plangintza demokratizatzeko, ekonomia postkapitalista sustatzeko eta estrategia trans-eskalarrak desplegatzeko baldintzak eskaintzen ditu. Artikuluan eztabaidatzen da esperientzia horrek zenbateraino eskaintzen dituen harreman kapitalistak gainditu eta trantsizio ekosozialista sustatzeko badintzak

5.4.- Euskal Herria berrirudikatuz: naziotik komunitate artatsura

Gorka Mercero Altzugarai

Euskal Herria berrirudikatuz: naziotik komunitate artatsura

Azken hirurogei urteotan, naziogintzak eta euskalgintzak aurrerapauso esanguratsuak egin dituzte autogobernuaren zein euskararen biziberritzearen arloetan. Gaur egun, ordea, geldialdi sakon baten aurrean daudela ohartarazi dute. Haien helburu historikoak—Espainiako eta Frantziako nazio- zein hizkuntza-erregimenen nagusitasuna iraultzea eta euskal nazioaren eta euskararen hegemonia ezartzea—gero eta ezinezkoagoa dirudi.

Egoera honek nazioaren ereduaren agortzea iradokitzen du, bai subiranotasuna, bai hizkuntza-normalizazioa aurreratzeko oinarri gisa. Izan ere, euskal nazioaren kontzeptua ez dator bat Euskal Herriak daukan aniztasun nazional eta linguistikoarekin. Norbanakoak oroz gain euskal nazioarekin eta euskararekin identifikatzera bultzatzen ditu, beste atxikimenduak baztertuz. Horrek konbentzituta daudenak berretsi egiten ditu, baina gainerakoak urruntzen—eta, ondorioz, adostasun zabalagoa lortzeko aukerak mugatzen.

Ikuspegi alternatibo batek Euskal Herriaren barne-aniztasuna oinarritzat hartu behar du, hari aurre egin ordez. Jean-Luc Nancy eta, bereziki, Roberto Espositoren lanetan oinarrituta, aurkezpen honek komunitate artatsu baten kontzeptua proposatzen du iruditeria politiko eta linguistiko berritu baten oinarri gisa. Komunitate hori ez da kideen arteko antzekotasunean oinarritzen, baizik eta ezberdina denarekin elkarbizitzeko eta berori zaintzeko inperatibo etikoan sustraitzen.

Hala ere, inperatibo ahul hori ez da emankorra izango alde guztiek aktiboki eta elkarreraginez jorratu ezean. Espainiako eta Frantziako estatuen zentralismo errotua kontuan hartuta, ezin da halako elkarrekikotasuna bermatu. Hala eta guztiz ere, komunitate artatsuaren ideiak nongotasun eta erantzukizun modu berriak irudikatzeko aukera eskaintzen du. Azken hipotesia hauxe da: beren burua nagusiki euskal herritar eta euskalduntzat dutenek espainiartasuna edota frantsestasuna ere Euskal Herriaren berezko osagai gisa onartuz gero, erregimen estatalei lotuago daudenek ere prestuago ager daitezke euskal subiranotasunaren eta euskararen normalizazioaren aldeko aldarrikapenei entzuteko.

5.5.- Intersekzionalitatearen eta gobernugintza publiko-komunitarioaren arteko heuristika

Nerea Aramendia

Intersekzionalitatearen eta gobernugintza publiko-komunitarioaren arteko heuristika: Hernani Burujabe kasua aztergai

Ponentzia hau, oraindik abian den, Doktorego tesi zabalago baten baitan kokatzen da. Honetan, gobernugintza publiko-komunitarioa (GPK) begirada intersekzionaletik ikertzen da. Hala, aurkezpen honetan aurrera eraman nahi den helburua GPKren eta intersekzionalitatearen arteko harreman heuristikoa arakatzea da. Horretarako, Hernani Burujabeko kasua aztergai izanik. Hernani Burujabe subiranotasuna egitura politiko ekonomiko eta sozialetan garatzeko herri proiektua da.

Egun GPK ezagutzen dugun moduan, XXI. mendearekin batera datorkigun aro aldaketari erantzuteko egituraketa politikoa da. GPKren eta intersekzionalitatearen arteko elkarrizketan hiru dimentsio antzeman dira: eraldaketa soziala, ahalduntze prozesuak eta gatazkaren ulerkera. Era berean, hiru dimentsio hauen arteko elkarrizketatik, demokratizaziorako esparru heuristikoa antzematen da. Hortaz, hiru aurrerapen teoriko nagusi azaleratu dira: (1) intersekzionalitateak eta gobernugintza publiko-komunitarioak elkarren beharra dute. (2) gobernuingtza publiko-komunitarioaren eta intersekzionalitatearen arteko harremanetik, eraldaketa sozialaren, ahalduntzearen eta gatazkaren arteko elkarrekintzatik sortutako demokratizaziorako esparru heuristikoa sortzen da. (3) Demokratizazioan sakontzeko adierazle intersekzionalak behar dira.

Ponentzia honetan, esparru heuristiko horretan sakonduko dugu Hernani Burujabe kasuaren bitartez. Beraz, nola eragiten du demokratizaziorako esparru heuristiko horrek Hernani Burujabeko subiraultza proiektuan? Zer nolako aukerak eskaintzen ditu GPKren eta intersekzionalitatearen arteko elkarrizketak burujabetzari? Zein elementu ezaugarritzen dira demokratizaziorako esparru horretatik? Galdera hauetara eta beste batzuetara gerturatuko gara aurkezpen honetan Hernani Burujabeko kasuaren bidez; eta honen guztiaren analisirako aurkeztuko den marko analitikoaren bidez

5.6.- Burujabeak. Euskal Herritik behetik gora iraultzen

Xabier Renteria-Uriarte

Burujabeak. EH behetik gora iraultzen

Zer da benetako burujabetza? Zeintzuk dira zinez burujabeak? Burujabetza ez da subiranotasuna, ez behintzat edozein subiranotasun. Buruetatik, alegia, norbanakoetatik eraikia izatea galdegiten du, errepresentazio ordezkatzaileak (demokrazia formala) zokoraturik, eta demokrazia zuzena edo parte-hartzailea lehenetsirik. Baina ez 'gobernantza' partzial gisa, benetako erabakimen gisa baizik. Burujabetza ikuspegi horretatik euskal erakunde anitz dago lanean gaur egun, eta batzuek badute Euskal Herria nola eraikitzeari buruzko diseinua.

Lan honetan talde horiek zeintzuk diren eta beren Behetik gorako Euskal Herria Burujabea eraikitzeko proposamenak mahaigaineratuko dira.

6.- Estrategia politikoak burujabetzarantz

6.1.- Sarrera. Introduction

Iñaki Zaldua

Estrategia politikoak burujabetzarantz

Mahai inguru honetan aurkeztutako komunikazioek Euskal Herriaren egungo egoera politiko, ekonomiko eta sozialaren azterketa kritikoa eskaintzen dute, diziplina akademiko ezberdinetatik ekarpenak eginik. Hots, kongresuaren ildoari jarraituz, nazio artean pil-pilean dauden erronkak Euskal Herrikoak ere badirela demostratu dute, ekarpenak nazionalismoaren ikerketatik, digitalizaziotik, sindikalgintzatik eta ekonomiatik eginik.

Nazioaren eta komunitatearen inguruko ekarpenek agerian uzten dute euskal nazionalismoak bizi duen egoera korapilatsua ez dela soilik testuinguru politikoaren ondorio, baizik eta erabilitako iruditeria kontzeptualaren agortzearekin ere lotuta dagoela. Hau da, Euskal Herriaren barne aniztasuna erdigunean jartzen duen komunitate artatsuaren proposamena aurkezten da, euskal nazionalismoaren diskurtso teoriko eta praktikoa berformulatzeko beharra azpimarratuz.

Ekonomiaren alorrean, komunikazioek zalantzan jartzen dute Barne Produktu Gordina garapenaren eta ongizatearen adierazle nagusi gisa erabiltzea. Subiranotasun ekonomikoaren ikuspegitik, azpimarratzen da ezinbestekoa dela aberastasunaren banaketa, lan-baldintzen kalitatea, jasangarritasuna eta kanpoarekiko mendekotasuna kontuan hartzea, eta, ondorioz, adierazle osagarriak txertatzeko beharra defendatzen da.

Teknologiari buruzko ekarpenek teknopolitikaren ikuspegia txertatzen dute, teknologia botere-harremanen adierazpen eta gizarte-antolaketarako egitura gisa ulertuta. Testuinguru horretan, burujabetza teknologikoa komunitateen autonomia politikoa bermatzeko baldintza gisa formulatzen da, ezagutza partekatuan, software librean eta kontrol publikoan oinarritutako ereduen bidez.
Era berean, esku-hartze publikoaren eta lan-harremanen inguruko ikerketek diskurtso ekonomikoek eta politika zehatzen inguruko eztabaidek herri izaeraren eta subjektu politikoaren eraikuntzan duten eragina aztertzen dute.

Laburbilduz, diziplina ezberdinetan oinarri duten ikerketek, oro har, agerian utzi dute Euskal Herriko erronka nagusiak ezin direla ikuspegi sektorial edo adierazle bakarretatik ulertu, ezinbestekoa izanik jendartearen ulermen integral, kritiko eta global bat. Ondorioz, marko teoriko eta politiko berriak formulatzeko premia partekatua dago, garaiko erronken aurrean, Euskal Herriko jendarterako aproposa den marko bat eskaintzeko.

6.2.- Euskal nazionalismoaren korapilo teorikoak

Julen Zabalo Bilbao

Euskal nazionalismoaren korapilo teorikoak

Euren helburu politikoak bideratzeko, nazionalismoek egokitu egiten dituzte estrategia politikoak momentuko egoeraren beharrizanetara. Baina estrategia politiko horiek oinarri teoriko bati erantzun behar diote, jendearen atxikimendua lortu gura bada. Praktika politikoa eta oinarri teorikoa ez doaz batera halabeharrez, baina zenbat eta banatuago egon, handitu egiten dira oztopoak eta kontraesanak mugimenduaren barruan.

Euskal nazionalismoa aldaketa garaian ari da XXI. mendean. Izan ere, gizartea aldatzen ari da, eta horrek baldintza berriak ezartzen ditu jendearen atxikimendua lortzeko. Horrekin batera, nazionalismoek bilatzen duten helburu nagusia (estatu bat, edo burujabetza maila gorena, oro har) erdiesteko modua ere aldatzen ari da. Horri erantzuteko praktika politikoa egokituz doa etengabe, baina praktikari babesa eman behar dion oinarri teorikoa geldoago doa batzuetan, eta hortik kontraesanak sortu dira.

Praktika eta teoriaren arteko konkordantzia modu desberdinean garatzen ari da, eta hori erakusten saiatuko gara, hainbat arlotan:

Lurraldean: Euskal Herria eta proiektu desberdinak hiru esparru administratibo nagusietan.

Subjektuan: liskarra edo kontraesana sortu da nazioaren eta demosaren artean.
Nazioan: zalantza dago nazioa nork osatzen duen, eta zer baldintza bete behar duen naziokideak.

Estatu motan: nazio-estatu motari eusten zaio aniztasuna gero eta nabarmenagoa denean.

6.3.- Euskal Herri subiranoko ekonomia BPG adierazlearekin neurtu behar al dugu?

Ainhoa Ozaeta

Euskal Herri subiranoko ekonomia BPG adierazlearekin neurtu behar al dugu?

Hainbat hamarkadatan, Barne Produktu Gordina (BPG) funtsezko tresnatzat erabili izan da lurraldeen hazkundea eta aberastasuna neurtzeko. Hego Euskal Herrian, biztanleko BPGa Espainiako Estatuaren batez bestekoaren gainetik dago eta maiz sendotasun ekonomikoaren adibidetzat aurkezten da. Ipar Euskal Herrian, berriz, adierazle hori Frantziako Estatuaren batez bestekoaren azpitik kokatzen da. Hala ere, BPGak ez ditu islatzen desberdintasuna, jasangarritasuna, gizarte-ongizatea, lan-baldintzen kalitatea eta kanpoarekiko mendekotasun ekonomikoa moduko funtsezko alderdiak.

Herri-subiranotasunak —eta bereziki subiranotasun ekonomikoak— gero eta garrantzi handiagoa duen testuinguru honetan, auzia are konplexuagoa da: zertarako balio du BPG altuak, baldin eta sektore produktiboari, energiari edo industriari buruzko erabaki estrategikoak kanpoko eragileen mende badaude? Ekonomia BPGaren bidez soilik aztertzeak ikuspegi partziala eskain dezake. Horregatik, autonomia, dibertsifikazio produktiboa eta bizi-kalitatea ebaluatzeko adierazle osagarriak txertatzeko premia ageri da.

BPGak baditu abantaila ukaezinak: oso adierazle ezaguna da, lurraldeen arteko konparazio azkarrak ahalbidetzen ditu eta ondasunen zein zerbitzuen ekoizpen maila neurtzeko erabilgarria da. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, BPGaren datuek ekonomia industrializatu bat erakusten dute: bigarren sektoreak pisu handia du eta esportazio-gaitasun nabarmena dago.

Hala ere, BPGak ez du askorik esaten lurralde baten benetako garapen sozioekonomikoaz. Ez du erakusten aberastasuna nola banatzen den, lan-prekarietaterik dagoen, ez eta jarduera ekonomikoaren ingurumen-inpaktua ere. Era berean, ez du jasotzen kanpo baliabideekiko mendekotasuna edo azpiegitura estrategikoen gaineko kontrol maila; biak ala biak funtsezkoak dira subiranotasun ekonomikoa baloratzeko.

Subiranotasuna ez da politikara mugatzen; ekonomiaren gaineko erabakitzeko ahalmena ere bada. BPG handia duen, baina atzerriko enpresen mende dagoen edo energia eta industria estrategikoen kontrolik ez duen lurralde batek ezin du benetako autonomia ekonomikoa aldarrikatu. Euskadiren kasuan, Kontzertu Ekonomikoaren bitartez eskumen fiskal zabalak izan arren, lehengaien horniduran, energia-sisteman eta makroerabaki jakin batzuetan oraindik kanpoko baldintzatzaileak daude.

Horregatik, adierazle osagarri multzo bat proposa daiteke, Euskal Herriak zenbat ekoizten duen ez ezik nola ekoizten duen, nork jasotzen duen balio erantsia eta zein autonomia mailarekin egiten den neurtzeko.

Ordea, batzuek defendatzen dute BPGa dela oraindik ere adierazlerik erabilgarriena: sinplea da, datu eskuragarriak ditu eta politika publikoetarako erreferentzia estandarizatua eskaintzen du. Gainera, bestelako indize batzuek metodologia heterogeneoak dituzte, eta konparagarritasuna mugatua izan daiteke. Hala ere, erabilgarria izateak ez du esan nahi nahikoa denik. BPGaren gaineko dependentzia esklusiboak hazkunde kuantitatibo hutsera bideratutako politikak susta ditzake, berdintasuna, iraunkortasuna eta subiranotasuna bigarren mailan utzita.

Ondorioz, BPGa beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa Euskal Herriko ekonomia sakonki ebaluatzeko. Errealitate soziala, ingurumen-dimentsioa eta subiranotasun ekonomikoaren maila uztartzen dituzten adierazleekin osatu behar da. Garapen integrala nahi duen lurralde batek ez du soilik zenbat ekoizten duen neurtu behar; baizik eta nork kontrolatzen duen ekoizpen hori, aberastasuna nola banatzen den eta hazkundea epe luzera jasangarria den ere baloratu behar du. Hori eginda bakarrik izango da posible euskal herritarren autonomia eta ongizatea indartuko dituzten politika publikoak diseinatzea.

6.4.- Diskurtso ekonomikoari dagokionez, ahots-leiho propiorik ba ote da Euskal Herrian?

Joseba Permach

Diskurtso ekonomikoari dagokionez, ahots-leiho propiorik ba ote da Euskal Herrian?

Komunikazioak diskurtso ekonomikoaren alorrean, Euskal Herriaren eta Estatu espainiarraren artean ezberdintasunik ba ote den aztertzea eta hausnartzea izango luke helburu. Horretarako, bost kasu konkretu aztertuko lirateke: 2011n zor publikoa murriztu asmoz onartutako Espainiako Konstituzioaren erreforma, 2012an finantza sistemaren kapitalizazio publikoa edota bankuen erreskatea deiturikoa, eta 2024an onartutako Europako arau fiskal berriak. Hirurak ekonomiaren gaineko esku hartze publiko garrantzitsuak izan ziren eta, ondorioz, haien inguruko iritzi eta diskurtso ugari eragin zituzten.

Era berean, gaurkotasun handiko beste bi gai ere aztertu nahiko nituzke bertan, armagintza gastuaren harira egun irekita dagoen eztabaida batetik eta Hego Euskal Herrian Lanbide arteko Gutxieneko Soldata bat zehazteko proposamena bestetik. Ekonomia politiko kulturalaren begiradak finkatzen du komunikazioaren oinarri teorikoa. Hartara, diskurtso ekonomikoaren analisi kritikoaren eta markoztatzeen azterketen bitartez, aipatu kasuak askotariko dimentsioetatik ikertzen dira. Metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartzen duen doktore tesi ikerketa batetik abiatzen den ikerketaren berri eman nahi da komunikazioan, baina egun jada garatzen ari diren beste gai batzuk mahai gaineratuz eta, bereziki, bi eremu edo lurraldeen arteko alderatzeari garrantzia emanez.

Hipotesi nagusia da ikergai ditugun bi eremuen (Euskal Herria eta Estatua) arteko aldea badagoela eta, beraz, kapitalaren interesen mesedeko diren esku hartzeak Euskal Herrian aurkakotasun handiagoa jasotzen dutela eta, aldiz, langileen interesen aldeko neurriak (gutxieneko soldata) babes handiagoa. Horrek guztiak herri izaeran eta nortasunean nola eragiten duen hausnartu nahiko nuke ere

6.5.- Teknopolitika baterako teknologia burujabetza perspektiba eta ideiak

Gorka Julio

Teknopolitika baterako teknologia burujabetza perspektiba eta ideiak

Teknopolitika, azken batean, boterearen teknologia bat da. Ez tresna bat, ezta zerbitzu bat ere: gizartearen antolamendua, parte-hartzea, kontrola eta askapena eraldatzeko modu bat da.

Teknologiak, funtsean, munduaren ulermen eta eraikuntza jakin bat islatzen du: zein balio, zein harreman eta zein helburu bideratzen ditugun. Horregatik, teknopolitikaren muinean dago teknologia ulertzeko eta garatzeko gaitasuna berreskuratzea, hau da, teknologia burujabetza.

Burujabetzaz hitz egitea ez da soilik tresna alternatiboak erabiltzea; baizik eta egitura, logika eta jabetza kolektiboan oinarritutako teknologia baten alde egitea. Hau da, teknologiaren politizazioa, haren neutrotasun faltsua kolokan jarriz. Horretan lagungarri dira software librea, datuen kontrol publikoa, segurtasun digital kolektiboa eta, batez ere, ezagutza partekatua.

Gure garaiko erronka nagusienetakoa da teknopolitika determinista, zentralizatua eta korporatiboa gainditzea. Horren aurrean, badugu zer eraiki: komunitateetara lotutako teknologia, erabakitzeko eskubidea bermatzen duten plataformak, parte-hartze garden eta demokratikoa, eta herri mugimenduek garatutako praktika subertsibo eta sortzaileak.

Teknopolitika baterako, ezinbestekoa da komunitateen autonomia teknologikoa eta politikoa artikulatzea. Ez da nahikoa alternatiba teknologiko bat edukitzea: beharrezkoa da kultura digital kritikoa, sare kooperatiboak eta botere-harremanak eraldatzeko borondate kolektiboa.

Burujabetza teknologikoa ez da etorkizuneko aukera, egungo erronka da eta horretan lagunduko diguten inspirazio iturri eta ideietan sakontzeko helburua izango dugu ponentzia honetan.

6.6.- Lanbide-arteko gutxieneko soldata propioa banaketa hirukoitaren baitan: burujabetza eguneroko borroketatik eraikitzen

Martin Arbeo

Lanbide-arteko gutxieneko soldata propioa banaketa hirukoitzaren baitan: burujabetza eguneroko borroketatik eraikitzen

Komunikazio honek Hego Euskal Herriko lanbide-arteko gutxieneko soldata propioaren aldeko borrokaren potentzial politiko eta estrategikoa aztertzen du, burujabetzaren eraikuntzaren ikuspegitik.

Gutxieneko soldata propioak hiru onura nagusi ekar ditzake, epe laburrean: (1) Testuinguru sozioekonomiko eta ekologikoki larrian, soldata minimoaren igoerak urgentzia sozialari erantzuteko balio du. (2) Horrez gain, Euskal Herriko klase subjektuaren berrosatzean ekarpena egiten du. (3) Azkenik, burujabetza politikoaren ikuspegitik jauzi bat suposatzen du.

Horrez gain, gutxieneko soldata propioa Banaketa Hirukoitzaren programa politikoaren baitan kokatuko da, burujabetza eta eraldaketa soziala josteko ardatz modura ulertuta: enpleguaren, zaintza lanen eta aberastasunaren birbanaketa, justizia sozial, ekologiko eta genero-ikuspegitik.

Proposamenak feminismoaren eta ekosozialismoaren ekarpenetatik edaten du, lanaren kontzepzioa problematizatuz eta hazkunde ekonomiko mugagabearen paradigmatik aldenduta. Horrenbestez, soldata minimoaren aldeko borroka ez da soilik lan-baldintzen hobekuntzarako tresna, baizik eta eredu sozioekonomiko berri batera bidean ezinbesteko neurria.

7.- Hizkuntza eta hezkuntzaren bidezko nazio eraikuntza

7.1.- Sarrera.
Introduction

Maria Sarasola

Hizkuntza eta hezkuntza bidezko nazio eraikuntza

Subiranotasun Emergenteak kongresuan nazio eraikuntzarako bideak eta baliabideak jorratzeko aukera izan dugu. Elementu horiek, ordea, forma askotarikoak hartzen dituzte. Segidan aurkeztuko dugun komunikazio-mahaiak horixe islatu du, hizkuntza, hezkuntza, muga eta berau gainditzeari lotutako nazio eraikuntza ardatz hartuta. Hausnarketa horietan murgildu dira Haritz Garmendia Iturria, Iban Asenjo Garde, Jon Fernández-Iriondo, Galder Sierra Zapirain eta Iñaki Zaldua Calleja.

Lehenik, Haritz Garmendia Hegoko epistemologien tresna metodologikoetaz baliatu da euskal hezkuntza sistemaren eta bertan ikastolen esperientziak duen tokiaren inguruko eztabaida aztertzeko. *Ikastolen esperientzia eta Hegoko epistemologiak* komunikazioaren bitartez, bi urrats proposatzen ditu Garmendiak auzi hori aztertzeko. Lehena, ausentzien soziologia, ahotsik ez duen subjektua menderatzen duen dikotomia identifikatzeari dagokio. Bigarrenak, soziologia emergenteak, dikotomia hori gainditzen duen subjektuari ahotsa eta legitimitatea ematea bilatzen du, beste kokapen batetik, bestelako kontakizuna osatzeko. Zehazki, pribatua/publikoa dikotomia modernitate espainiar eta frantziarraren kontakizunaren barruan kokatu ditu Garmendiak. Hortaz, euskal hezkuntza sistemaren inguruan soberania emergenteen parametroen baitan aritzeko, dikotomia hori gainditzea beharrezkoa dela ondorioztatu du.

Bigarrenik, Iban Asenjok eztabaidari jarraipena eman dio *Euskal eskola publikoa ala ikastola? Hautaketa-prozesuak, segregazioa eta euskararen rola* komunikazioarekin. Euskal hezkuntza sistemako eskola-segregazioan jarri du arreta. Horretarako, eskola-hautaketari lotutako *white flight* fenomenoa ekarri du, hots, klase ertaineko hainbat familiek eskola publikoetatik alde egitea beren seme-alabak ingurune sozial homogeneoagoetan hezteko. Bi ikastetxe soilik dauden (ikastola eta eskola publikoa) 10.000 biztanle inguruko udalerri batean gauzatutako ikerketa kualitatiboan oinarrituta, Asenjok ondorioztatu du aukera-askatasunak segregazioa areagotu dezakeela, eta horren aurrean, ezinbestekoa dela ikasleen banaketa orekatua bermatuko duten politika publikoak garatzea.

Euskal hezkuntza sistemaren bidezko nazio eraikuntzari heldu dion hirugarrena Jon Fernández-Iriondo izan da. Zehazki, ikastetxeetako testuliburuei erreparatu die *Hezkuntza-burujabetza eta testuliburugintzaren afera Gizarte Zientzien arloan: hurbilketa kuantitatibo bat Euskal Herriko eskolen errealitatera* komunikazioan. Ikasmaterialek hezkuntza eta kultura-burujabetzan duten garrantziaz ohartuta, Hego Euskal Herriko lehen hezkuntzako ikastetxeetan zeintzuk erabiltzen dituzten ikertu du. Emaitzek hiru talde nagusi erakutsi dituzte Gizarte-Zientzien irakaskuntzari dagokionez, baita lurralde eta ikastetxeen arteko aniztasun nabaria ere.

Laugarrena Galder Sierra izan da. Hezkuntzatik urrundu eta nazio eraikuntzarako bide izan daitezkeen mugaz gaindiko gobernantza ereduak ekarri ditu *Mugaz gaindiko gobernantza ereduak Euskal Herrian. Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroako Euroeskualdearen eta Mendebaldeko Eremu funtzionalaren kasuen azterketa* komunikazioaren bidez. II. Mundu Gerratik aurrera areagotutako deszentralizazio prozesuen testuinguruan, Euskal Herriko instituzio nagusien arteko mugaz gaindiko gobernantza ereduak aztertu ditu: Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak osatzen duten Euroeskualdea; eta Mendebaldeko Eremu Funtzionala (AFOMEF). Komunikazioan zehar, tresna horiek Euskal Herriko mugak lurraldetu, deslurraldetu edo birlurraldetzen dituzten aztertu du, baita nazio eraikuntzan egin dezaketen ekarpena azpimarratu ere.

Azkenik, euskal nazioa nola egituratzen den aurkeztu du Iñaki Zalduak *Komunitate irudikatua ez da homogeneoa. Euskal nazio heterogeneoaren azterketa* komunikazioan. Nazioa *habitus* gisara ulertuta, Zalduak euskal nazionalismoaren periferia aztertu du; hau da, nazionalismoak aldarrikatzen duen lurraldeko mugaldeko abertzaleen nortasun-elementuak identifikatu ditu. Ikerketa honetatik abiatuta, Zalduak ondorioztatu du Euskal nazioa *komunitate irudikatuaren* baitan nortasun-elementuak aldatu egiten direla eta, hortaz, heterogeneoa dela.

Nazioa eraikitzeko bideak asko eta askotarikoak direla argi geratu da komunikazio-mahai honetan: ikastetxe ereduak, ikasmaterialak, estatu-naziotik haratago doazen goebrnantza ereduak edota nortasun-elementuak kasu. Tresna horiek duten potentzialtasuna era ezberdinetan egikaritu daitekeela ikusi dugu; baita bide horiek guztiek berekin erronkak dakartzatela ere.

7.2.- Ikastolen esperientzia eta hegoko epistemologiak

Haritz Garmendia

Ikastolen esperientzia eta Hegoko epistemologiak

Ikastolen esperientzia ikerketa-objektu korapilatsua da euskal ikertzaileen artean. Zenbaitentzat, nazio askapenerako funtsezko erakundea izaten jarraitzen du; beste batzuentzat, aldiz, erakunde honek iraganean ekarpen garrantzitsua egin bazuen ere, gaur egun ikastolak ez dira beharrezkoak Euskal Herriko zenbait zonaldetan, bereziki EAEn.

Komunikazio honetan uste da eztabaida hori guztiz lotuta dagoela kongresu honen izenburuarekin: Subiranotasun Emergenteak. Estaturik gabeko nazionalismoen nortasun, lurralde eta estatu-eraikuntzak.

Eztabaida horretara hurbiltzeko, Hegoko epistemologiek eskaintzen dituzten tresna metodologikoak erabiliko ditut. Azken horien arabera, bi urrats bereizi behar dira halakoetan:

1. Ausentzien soziologia: ariketa honen xedea da ahotsik ez duen subjektua menderatzen duten dikotomia identifikatzea.
2. Soziologia emergentea: ariketa honen helburua da dikotomia hori gainditzen duen subjektuari ahotsa eta legitimitatea ematea, beste kokapen batetik, bestelako kontakizuna osatzeko.

Komunikazio honetan proposatzen den hipotesia da subiranotasun “emergenteetaz” hitz egiteko funtsezkoa dela aurrez zehaztea zeintzuk diren “subiranotasun ausenteak”. Alde horretatik, euskal subjektua menderatzen duen marko kognitiboaren jatorria espainiar eta frantziar proiektu moderno koloniala dela suposatzen dugu. Hori guztia ikastolen gaira ekarrita, honako hau proposatzen dugu:

0. Ikastolen eztabaida: nazio zapaldu bat izatearen ondorio da.
1. Ausentzien soziologia: pribatua/publikoa dikotomia modernitate espainiar eta frantziarren kontakizunaren barruan kokatzen da.

Gauzak horrela, komunikazio honetan uste dugu nekez hitz egin daitekeela euskal hezkuntza sistemaren inguruan, soberania eta estatugintza emergenteen parametroetan, aurrez honako dikotomia hauetatik askatu gabe: pribatu/publiko. Lehen ariketa hori egin ezean, berrikuntza sozial gisa aurkezten diren XXI. Mendeko egituraketa politiko berriak modernitatearen parametroetan harrapatuta gelditzen ote diren irudipena dugu

7.3.- Euskal eskola publikoa ala Ikastola? Hautaketa-prozesuak, segregazioa eta euskararen rola

Iban Asenjo Garde

Euskal eskola publikoa ala ikastola?
Hautaketa-prozesuak, segregazioa eta euskararen rola

Eskola-segregazioa euskal hezkuntza-sistemaren egiturazko erronka nagusietako bat da, eta azken urteotan bere intentsitatea areagotu da. Save the Children-en arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) da espainiar Estatuan jatorriaren araberako segregazio-tasa altuena duena. Segregazio-prozesua ez da neutroa, eta politika publikoek eragina dute. EAEn titulartasun bikoitzak (publikoa vs. itundua) eta hizkuntza-ereduek elikatzen dute fenomeno hau.

Ikerketa honek eskola-hautaketari lotutako white flight fenomenoa aztertzen du: klase ertaineko hainbat familiek eskola publikoetatik alde egiten dute beren seme-alabak ingurune sozial homogeneoagoetan hezteko. Hala ere, literatura akademikoak erakutsi bezala, badira eskola publikoa hautatzen duten beste klase ertaineko familia batzuk ere, balore aurrerakoiak eta gizarte-aniztasunaren defentsa gidari dituztela (Posey-Maddox, 2014).

Ikerketa kualitatibo honetarako kasu-azterketa bat burutu dut 10.000 biztanle inguruko udalerri batean, non bi ikastetxe baino ez dauden (eskola publikoa eta ikastola). Elkarrizketa erdi-egituratuak egin nizkien 27 parte-hartzaileri (guraso, irakasle eta udal ordezkariak), eta informazioa NVivo softwarearen bidez kodifikatu eta kategorizatu nuen.

Emaitzek erakusten dute euskararen rola funtsezkoa dela eskola-hautaketan: ikastola euskararen transmisioan eta komunitate-loturan kokatzen bada, eskola publikoa hautatzen duten familiek, aldiz, euskararen aldeko konpromisoa adierazten dute, ikuspegi inklusibo batetik. Era berean, hautaketa-prozesuan eragina dute ikastetxeen irudiak, azpiegiturek eta euskaren presentziak. Horrek zirkulu itxia sortzen du segregazioaren dinamiketan. Ikerketak erakusten du aukera-askatasunak segregazioa areagotu dezakeela, eta horren aurrean, ezinbestekoa da ikasleen banaketa orekatua bermatuko duten politika publikoak garatzea.

Hitz gakoak: Eskola-segregazioa; white flight; euskara; eskola-hautaketa.

7.4.- Hezkuntza-burujabetza eta testuliburugintzaren afera gizarte zientzien arloan: hurbilketa kuantitatibo bat Euskal Herriko eskolen errealitatera

Jon Fernandez Iriondo

Hezkuntza-burujabetza eta testuliburugintzaren afera Gizarte Zientzien arloan: hurbilketa kuantitatibo bat Euskal Herriko eskolen errealitatera

Curriculum ofizialari zehaztapena ematen dioten artefaktu kulturalak izateaz gain, eskola-liburuak badira salerosgaiak ere, merkatu globalizatu batean (Apple eta Christian-Smith, 1991: 5). Testuliburugintzaren sektoreak —non oligopolioetaranzko joera eta argitaletxe multinazionalen nonahikotasuna nabarmenak diren (Höhne, 2018: 118)— munduko desparekotasunak islatzen ditu. Soilik zenbait zentro metropolitanok dituzte merkatuan gailentzeko beharrezkoak diren trebezia, azpiegiturak, baliabideak eta kapitala, eta munduko herrialde ugari zentroak produzitzen duenarekiko dependienteak dira.

Menpekotasun horrek ondorio kultural kaltegarriak izan ditzake Hegoalde Globaleko herrialdeetan edota nazio txikietan, argitaletxe handien kostuen minimizazio-politikak testuliburuen homogeneizazioa baitakar berekin, tokiko testuinguruetara ez egokitutako ikasmaterialak banatuz maiz periferietan (Altbach, 1991).

Testuliburuen afera hezkuntza eta kultura-burujabetzarako funtsezkoa izanik ere, Euskal Herriko administrazioek ez dute erregistratzen zer ikasmaterial erabiltzen dituzten ikastetxeek, eta beraz ez dakigu argitaletxe multinazional nahiz tokikoek zer merkatu-kuota duten gurean. Datu horren gabeziaren aurrean, zalantza hori argitzeko premia agertu da doktore-tesiaren prozesuan. Teknika esploratzaile gisa, inkesta bat helarazi zaio lehen hezkuntza eskaintzen duen ikastetxe orori Hego Euskal Herrian. 760 eskolatik 301 eskolaren erantzuna jaso ostean (akats-tartea: %4,39), ikerketa kuantitatibo honen emaitzek erakusten dute eskolen artean hiru talde nagusi daudela, Gizarte-Zientzien irakaskuntzari dagokionez: argitaletxe multinazionalak edo estatu-mailakoak erabiltzen dituztenak (%33), Ikastolen Elkarteak eta Elkarrek sortutako tokiko argitaletxea erabiltzen dutenak (%27), eta testulibururik erabiltzen ez dutenak (%39). Lurraldez lurralde eta eskola-sare batetik bestera ezberdintasun esanguratsuak egonik, asmoa da Emergent Sovereignties kongresuan ikerketaren emaitzak aurkeztea.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Altbach, Philip G. “Textbooks: The International Dimension”. Michael W. Apple eta Christian-Smith, Linda K. (arg.). The Politics of the Textbook. New York/Londres: Routledge. (242-258).

- Apple, Michael W. eta Christian-Smith, Linda K. (1991). “The Politics of theTextbook”. Michael W. Apple eta Christian-Smith, Linda K. (arg.). The Politics of the Textbook. New York/Londres: Routledge. (1-21).

- Höhne, Thomas (2018). “Educational Media, Reproduction, and Technology:Towards a Critical Political Economy of Educational Media”. Eckhardt Fuchs eta Annekatrin Bock (arg.). The Palgrave Handbook of Textbook Studies. New York: Palgrave Macmillan. (115-126)

7.5.- Mugaz gaindiko gobernantza ereduak Euskal Herrian. Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroako Euroeskualdearen eta Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren kasuen azterketa

Galder Sierra Zapirain

Mugaz gaindiko gobernantza ereduak Euskal Herrian. Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroako Euroeskualdearen eta Mendebaldeko Eremu Funtzionalaren kasuen azterketa.

Mugak nazio-estatu burujabeen botere politikoaren zedarritzaile nagusietakoak izan dira, XVII. mendetik hona. Botere politikoa, ordea, nekez izan da estatuen jabetza esklusiboa; estatuek goitik eta behetik banatu behar izan dute. Deszentralizazio prozesu horiek II. Mundu Gerratik aurrera nabarmen areagotu dira, maila anitzetako gobernantza ereduei bide emanez. Gure inguruneko herrialdeei dagokienez, europar integrazioak marko orokorra jarri die prozesu horiei. Berez konplexua den dinamika hori, are korapilatsuagoa suertatu da mugaren inguruko lurraldeetan, non estatuek errezeloz begiratu duten lurralde horiek botereaz egin zezaketen erabilpena, mugaren beste aldean kokatzen direnekin aritzeko orduan.

Gaiaren inguruko literaturan oinarrituta, aurkezpen honek mugaz gaindiko gobernantza mota ezberdinak aztertzeko tipologia bat proposatzen du, hiru ereduetan oinarrituta. Lehenengoak, eredu federalisten logika deszentralizatzailean oinarrituta ere, ezarrita dauden mugak lurraldetu edo indartuko lituzke, subirautzaren azken jabetza estatu-nazioen esku uzten duen heinean. Bigarren ereduak, estatu soberanoen gainbeheraren teoriei jarraituz, mugak deslurraldetu edo lausotu egingo lituzke, egungo mundu ultra-globalizatuan mugek beraien zentzua galdu dutela ulertuta. Hirugarren ereduak, berriz, integrazio prozesuek hainbatetan barnebiltzen dituzten eraldaketei jarraituz, mugen birlurraldetzea lekarke, mugek ordura arte izan duten zentzua aldatuz, eta espazio partekatu berriak eraikitzeko tresna bihurtuz.

Tipologia hau gurera ekartzen saiatuko gara, Euskal Herriko instituzio nagusien arteko mugaz gaindiko gobernantza ereduak aztertuz. Zehazki, bi tresna instituzionaletan jarriko da arreta: batetik, Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak osatzen duten Euroeskualdean; eta bestetik, europar funtsen kudeaketarako sortutako Mendebaldeko Eremu Funtzionalean (AFOMEF). Era honetan, tresna hauek gure herrian indarrean dauden mugak lurraldetu, deslurraldetu edo birlurraldetzen dituzten argitzen saiatuko gara.

7.6.- Komunitate irudikatua ez da homogeneoa. Euskal nazio heterogeneoaren azterketa

Iñaki Zaldua Calleja

Komunitate irudikatua ez da homogeneoa. Euskal nazio heterogeneoaren azterketa.

Testuinguru soziologikoak nortasunen egituraketan eragiten du. Hau da, naziokideak erlekumeko (Berardi, 2017) zelaian duten kokapenaren arabera (Bourdieu, 1991, 2011, 2012), egituratzen dute beraien nortasuna, gertuko baldintzetara moldatuz. Ondorioz, nazionalismoaren eraikuntza diskurtsiboei erreparatzen badiegu, bereziki estaturik ez duten nazionalismoetan ematen direnei, beraien aterkipean egituratzen diren naziokideak era ezberdinean egituratuko dituzte beraien nortasun diskurtsoak, egituran eraginda. Alegia,nazioa habitus gisara identifikatuz gero, egitura egituratu egituratzailea, ezaugarrien dinamismoa aztertzeko aukera izango dugu.

Gure azterketan euskal nazionalismoaren periferia izan dugu aztergai. Alegia, euskal nazionalismoak aldarrikatzen duen lurraldeko mugaldean, non nazio diskurtso hegemonikoa egikaritu ezin den eremuan, abertzaleak elkarrizketatu eta kasu bakoitzeko nortasun-elementuak identifikatu ditugu. Ondorioz, komunitate irudikatuaren heterogeneotasuna ikuskatu eta ezaugarritu dugu; kasuen arabera ezaugarri hauek aldatzen direla konfirmatuz

8.- Euskal Herriko eraikuntza nazionalerako ezaugarritzea

8.1.- Sarrera.
Introduction

Nerea Aramendia

Euskal Herriko eraikuntza nazionalerako ezaugarritzea

Eskuartean dugun testuak, orokorrean, burujabetzen inguruko eta, zehazki, *Euskal Herriko eraikuntza nazionalerako ezaugarritzea*ren inguruko hausnarketak eta ikerketa-ildoak biltzen ditu. Hala, izenburu horren pean antolatutako komunikazio mahaian aurkeztutako gogoetak harilkatuko ditugu hurrengo lerroetan. Beraz, nazionalismo kulturaletik, nazionalismo emergenteetara bidaiatuko dugu; haren autogobernua, muga, estatus politikoa eta ulermenaren garapena zeharkatuz. Horretarako, Ander Loyolaren, Gorka Fraetersen, Onintze Azpitarteren, Jon Garroren, Mikel Aparicioren eta Haritz Azurmendiren komunikazioak oinarri gisa izango ditugu.

Hasteko, Ander Loyola, Nafarroako autogobernuak zein nortasunak duten izaera performatiboaz mintzatu da. Haren esanetan, Nafarroako erkidegoaren subjektibitate juridiko eta instituzionala zein "navarrismoaren" nortasun politiko eta soziala, Espainiar Estatuko trantsizioaren baitan jazotako gatazka ideologikoen eraginpean eraiki ziren. Beraz, 1982an "LORAFNA"rekin eraikitako "foralitate" berriaren gisara, subjektibitate juridiko eta identitario berriak sor daitezkeela mahaigaineratu du.

Gorka Fraetersek, berriz, Euskal Herria bereizten duen mugaren inguruan solasteko, estatu-bereizketa gauzatzen dituzten baldintza historikoak aztertu ditu. Horretarako, kasu azterketa abaitu du; Xareta, Bera eta Etxalarko tokiko mugaldearen bereizketa era integralean ikertuz. Aditzera eman duenez, aurreko mendean zehar Euskal Herriko mugaren bi aldeetako elkarren arteko dependentzia materialak nabarmen egin du behera. Eta horrek, euskal mugaldearen sostengarritasuna kolokan jartzen du.

Onintze Azpitartek, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko estatus politiko berriaren inguruan aritu da; eta horretarako Naziometroaren datuak arakatu ditu. Horretarako, Hego Euskal Herriko alderdi politiko abertzaleek (Eusko Alderdi Jeltzalea eta Euskal Herria Bildu) zein gazte mugimendu edota antolakunde abertzaleek (Eusko Gaztedi-EGI eta Ernai) estatus politiko berriaren gainean adierazi dituzten iritziak, helburuak nahiz proposamenak aztertu ditu. Era berean, 2023an Naziometroak argiratutako lurraldetasunaren inguruko datuen inguruan, Hego Euskal Herriko ordezkari abertzaleek zer iritzi duten ere jaso du. Hortaz, euren arteko adostasun zein desadostasun nabarienak bildu eta plazaratu ditu.

Hurrengo hizlaria Jon Garro izan da. Berak Eusko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) diskurtsoaren bilakaera aztertu du euskal nazioaren ulermenari dagokionean. Horretarako, Garrok EAJren begietan euskal nazioa noiz eta nola sortu zen; eta haren parte izateko bete beharreko baldintzen aletzea aztertu du. Eskema hori oinarri hartuta eta EAJk euskal nazioaren ulerkeraren inguruan izan duen bilakaera aztertuta; EAJk kontraesankorrak izan daitezkeen ikuspegiak bere ikuskeraren baitan artikulatzeko gaitasuna izan duela ondorioztatu du.

Mikel Apariciok, EAJren eta Euskal Herria Bilduren marketin politikoa aztertzeko, Jennifer Lees-Marshmenten alderdien orientazioaren teoria baliatu du. Hala, haren teoriari jarraituz, “produktuaren”, “salmentaren” eta “merkatuaren” araberako azterketa egin du Apariciok. Bertan alderdien patroi diskurtsibo zein komunikatiboak identifikatu ditu. Era berean, EAEko eskenatokian nortasun nazionala eragile egituratzaile gisa agertzen denez, kasu hauetarako aproposa den teoria hau erabiliz, alderdien eta herritarren arteko harramana aztertu du.

Azkenik, Haritz Azurmendik nazionalismo kulturalaren teorizazioa izan du hizketa gai; eta horrek aurreko bi mendeetako Euskal Herriko ibilbide historiko, politiko, sozial eta kulturala ulertzeko sortzen duen abagunea. Harek John Hutchinsonek nazionalismo kulturalaren inguruan egiten duen kontzeptualizazioa zein Joxe Azurmendik lurralderatutako pentsamendu eta praxia jaso ditu. Hala, XIX. eta XX. mendeetako euskal nazionalismoaren izaera sakonki ulertzeko, nazionalismo kulturalaren kontzeptuaren garapenaren beharra arakatu du.

Lan-ildo desberdinetatik, Euskal Herriko eraikuntza nazionalerako ezaugarritzeari bultzada eman diote ikerlari hauek. Halaber, Euskal Herriko txoko eta, beraz, abiapuntu anitzetatik heldu diote gaiari. Horrela, Iparraldetik mugak eragiten duen bereizketari erantzuteko beharretik zein Nafar nortasuna eta subjektibitate juridikoa eraberritzeko erronkatik edota EAEko estatus politiko nahiz nazioaren ikuskera ugarietatik igaro gara. Modu honetan, Euskal Herriko naziogintzaren ezaugarritzeak egun aurkezten dituen aukera zein erronketara gerturatuta.

8.2.- Identitatea eta autogobernua politikaren eta zuzenbidearen artean: Nafarroaren kasua

Ander Loyola Sergio

Identitatea eta autogobernua politikaren eta zuzenbidearen artean: Nafarroaren kasua

Nafarroa, subjektu juridiko-instituzional gisa, eta nafartasunak, identitate soziopolitiko gisa, asko zor diote Espainiako Trantsizioan jazo ziren gatazka ideologiko eta historikoei. Izan ere, gatazka horien inguruan izandako eztabaida politikoek baldintzatu zuten gaur egungo lege- eta erakunde-esparrua. Hala, Nafarroari garaiotan emandako trataera bereziak bere erakundeetan, nortasunean eta autogobernuaren egituratzean eragin zuen, zeinak guztiak "navarrismoa" identitate gisa ulertzeko orduan emandako talketan oinarritzen da; izan diktaduraren erregimenaren jarraipenaren eta hausturaren arteko talka, edota baita Nafarroaren espazio politikoak eta orduko euskal lurraldeekin lotzeko edo zatitzeko borondatea.

Hala, Nafarroari ordena politiko berriaren barruan emandako eginkizuna ez datza bakarrik lege- eta erakundetze berrian, baizik eta egia absolutu eta aldaezintzat hartzen diren nortasunari, mitoei eta dogmei buruzko eztabaida historikoetara ere heltzen zaio. Eztabaida hauen erdigunean, bereziki, Nafarroako kontzientzia historikoan sakon errotuta dauden foruak leudeke, Nafarroako egitura instituzionalaren, identitatearen eta autogobernuaren giltzarri izan direnak eta, aipatutako gatazken ostean, 1982ko 13/1982 Lege Organikoaren onarpenarekin —Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legea (LORAFNA) izenez ezaguna— “foralitate” berritu batera bideratu zirenak, autogobernurako eskubide historikoak eguneratu eta erakunde demokratiko berrietara egokitzeko asmoz.

Auzia da mito eta irudikapenal ez direla estatikoak, ebolutiboak eta dinamikoak baizik. Horregatik, gaur egungo erronka eta berrinterpretazioei aurre egin beharko diete, euren ustezko zaharkitzapenaren ondorioz, konstituzio-esparruaren eskakizunek bultzatuta eta agertoki politiko berrien garapenak eraginda, itzulpen juridiko-instituzional berrietara eraman daitezkeelarik.

8.3.- Euskal Herriko estatu-bereizketaren baldintza historikoak eta Xareta, Bera eta Etxalarko mugaldea gaur egun

Gorka Fraeters Irigoien

Euskal Herriko estatu-bereizketaren baldintza historikoak eta Xareta, Bera eta Etxalarko mugaldea gaur egun.

Ipar eta Hego Euskal Herrien arteko harremanen bazterketa epistemikoa gainditzeko beharretik abiatuta, Master Amaierako Lan honek Euskal Herriaren estatu-bereizketa bideratu duten baldintza historikoak aztertzen ditu, Schengen aroko mugaldearen eguneroko kohesioa neurtzeko.

Lehenengo zatian, muga-teoria postmodernoaren ekarpenak eta muga propioak sintetizatzen ditugu europar estatugintzaren eta fazerien historiografia kritiko batekin. Erakusten dugunez, marko geopolitiko klasikoak ez dira nahikoak frantziar eta espainiar estatuen eta eskala ekonomikoen arteko bereizketa espaziala azaltzeko, baldintza tekniko-ideazional, herrikoi eta politiko-ekonomikoak ere integratzea ezinbestekoa dela azpimarratuz.

Lan honen bigarren zatian, elkarrizketa erdi-egituratuak, behaketa etnografikoa, lehen mailako iturriak eta ikerketa erabilgarriak uztartzen ditugu Xareta, Bera eta Etxalarko tokiko mugaldearen estatu-banaketa eratzen duten elkarreragin aldeaniztunak historizatu eta holistikoki ezaugarritzeko. Argudiatzen dugunez, lotura etnolinguistiko sakon eta iraunkorrek oraindaino mugaz gaindiko egunerokotasunaren arruntasuna bermatu duten arren, XX. mendean zehar bi aldeen interdependentzia materiala nabarmenki urritu da—hain zuzen europar mugen ustezko 'irekieraren' alderantziz—euskal mugaldearen epe-luzeko erreprodukzioa arriskuan jarriz.

8.4.- De la nación heredada a la nación elegida: análisis sobre la evolución de la concepción de la nación vasca en el discurso del PNV

Jon Garro

De la nación heredada a la nación elegida: análisis sobre la evolución de la concepción de la nación vasca en el discurso del PNV

Las recientes declaraciones del presidente del Euskadi Buru Batzar (EBB), Aitor Esteban, afirmando que no sabe si su sucesor en el cargo "se apellidará Agirregomezkorta, Martínez o García. O puede que Hassan [...] pero su única patria será Euskadi", han vuelto a centrar la atención en la forma en que el Partido Nacionalista Vasco (PNV) concibe la nación vasca. Las declaraciones de Esteban reflejan una idea de la nación vasca subjetiva y voluntarista, que contradice los planteamientos primordialistas y objetivistas que el partido manifestaba en sus inicios.

El objetivo de esta comunicación será precisamente analizar dicha evolución desde la fundación del partido hasta la actualidad, poniendo el foco en dos aspectos principales: por un lado, cómo y cuándo entiende el PNV que surge la nación vasca; y, por otro lado, los requisitos que debe cumplir cada persona para considerarse miembro de la misma.

Como marco teórico principal, se adoptarán los paradigmas de la nación planteados por Anthony D. Smith. Dada la amplitud temporal que abarca el estudio, nos centraremos en seis momentos históricos que nos ayudarán a contextualizar esta transformación, prestando especial atención a las circunstancias políticas y sociales de cada periodo: la fundación del partido en 1895, la Segunda República, la clandestinidad durante el franquismo, la Transición, el centenario de la formación, y la última ponencia política de 2025. Como partido mayoritario que se sitúa en la centralidad de la política vasca, estudiar la evolución del PNV es en cierta manera una forma de estudiar también la evolución de la sociedad vasca.

En conclusión, el análisis evidencia que el PNV ha logrado, a lo largo de su historia, conjugar simultáneamente en su discurso distintas formas de concebir la nación vasca,incluso cuando estas puedan resultar, en principio, contradictorias.

8.5.- Emerging Nationalisms and Party Orientation: A Political Marketing Analysis of PNV and EH Bildu

Mikel Aparicio Zorroza

Emerging Nationalisms and Party Orientation: A Political Marketing Analysis of PNV and EH Bildu

This paper explores Jennifer Lees-Marshment's Party Orientation theory and applies it to the electoral dynamics between the Basque Nationalist Party (PNV) and EH Bildu in the Basque Country, where national identity plays a pivotal role in political competition. Lees-Marshment's framework, widely recognised in political marketing research, distinguishes three orientations — product, sales, and market — that clarify how parties shape their programmes and connect with the electorate, especially in contexts where identity is a core political driver.

A product-oriented party prioritises its founding principles and its distinct national vision, maintaining a coherent ideological offer without significant concessions to external demands. A sales-oriented party retains its key ideas but relies heavily on persuasive communication to broaden support, often emphasising identity markers to boost electoral appeal. In contrast, a market-oriented party adapts its policies proactively to voter expectations, tailoring its message and proposals to social trends and the prevailing political climate, with particular sensitivity to national and regional identity concerns.

Lees-Marshment's model thus serves as a valuable lens for examining how nationalist parties such as PNV and EH Bildu design their political marketing in competitive and fragmented settings. Applying this perspective helps to pinpoint their campaign and messaging strategies and sheds light on how these parties maintain and reshape ties with voters in plural identity contexts. Moreover, this approach offers comparative insights for analysing similar nationalist movements elsewhere, enhancing its relevance for broader studies of party competition.

Keywords: Jennifer Lees-Marshment, political marketing, party orientation, nationalism, Basque Country, PNV, EH Bildu, political strategy.

8.6.- Nazionalismo kulturalaren teorizazioaz eta horrek Euskal Herrian duen gaurkotasunaz

Haritz Azurmendi Arrue

Nazionalismo kulturalaren teorizazioaz eta horrek Euskal Herrian duen gaurkotasunaz

Komunikazio honek nazionalismo kulturalaren teorizazioaz gogoeta egin nahi du, bereziki horrek Euskal Herriaren eta euskal nazionalismoaren azken bi mendeetako bilakaera historiko, politiko, sozial eta kulturala ulertzeko egin dezakeen ekarpenaz.

Hipotesi modura, proposatuko da nazionalismo kulturalaren kontzeptu argi batek lagunduko lukeela XIX. eta XX. mendeko euskal nazionalismoaren agerpenak orain arte baino modu konplexuagoan, zehatzagoan eta historizatuagoan aztertzen. Era berean, egungo abertzaletasunaren inguruko eztabaidetan ere tresna teoriko garrantzitsua izan daitekeela argudiatuko da.

Horretarako, lehenik eta behin, nazionalismo kulturalaren kontzeptua argituko da, bereziki John Hutchinsonen (Hutchinson 1987; 1999) kontzeptualizaziotik eta Joxe Azurmendiren pentsamendu eta praktika kokatutik (Azurmendi Arrue 2019b; 2019a; Azurmendi-Arrue eta Garmendia Castaños 2019) abiatuta.

Argipen teoriko horrekin batera, Euskal Herriko akademian, nazionalismo ikerketetan, kontzeptuak izan duen presentzia urriaz egingo da gogoeta, bereziki horrek sortu izango lituzkeen hutsune interpretatiboez. Horrela, euskal nazionalismoaren genealogiaren nahiz gaur egungo egoeraren inguruan dauden zenbait ikuspegi (Zabalo eta Odriozola 2017; Zabalo Bilbao eta Odriozola Irizar 2017) berrikusi eta aberastea espero da, baita, etorkizunera begira, abertzaletasunaren baitan egon daitezkeen berrikuntzak ulertzeko gako gehigarriak eskaintzea ere.

8.7.- Euskal Autonomia Erkidegorako estatus politiko berria eta Naziometroaren datuak: alderdi politiko eta gazte erakunde abertzaleen ikuspegiak eta proposamenak

Onintze Azpitarte Lopez

Euskal Autonomia Erkidegorako estatus politiko berria eta naziometroaren datuak: alderdi politiko eta gazte erakunde abertzaleen ikuspegiak eta proposamenak.

Euskal Autonomia Erkidegorako Estatus Politiko Berriaren inguruko eztabaidak garrantzia hartu zuen 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan eta ondorengo garai politikoan. Testuinguru horretan, eta gaiaren gaurkotasuna kontuan hartuta, ikerketa honetan euskal alderdi abertzaleen (Eusko Alderdi Jeltzalea eta EH Bildu) eta gazte mugimendu edo antolakunde abertzaleen (Euzko Gaztedi-EGI eta Ernai) iritziak, helburuak eta proposamenak aztertu ditugu EAEko Estatus Politiko Berriari dagokionez. Halaber, gizarte mobilizazioaren dimentsioa aintzat hartzeko asmoz, Naziometroan (2023) lurraldetasunaren auziaren inguruan jasotako datuei buruz ordezkari abertzaleek egiten duten balorazioa ere aztergai izan dugu.

Horretarako, euskal alderdi zein gazte erakunde abertzale bakoitzeko kide bana elkarrizketatu dugu. Horrenbestez, ondorioztatu dugu EAEko Estatus Politiko Berriaren inguruan alderdi zein gazte erakunde abertzaleek zenbait iritzi, helburu eta proposamen partekatzen dituztela -hala nola, une politikoaren irakurketan edo EAEko Estatus Politiko Berriak jaso behar dituen gutxieneko edukietan-, baina, era berean, desadostasunak ere badituztela, adibidez, akordiorako borondateari edo lurraldearen ulermenari dagokionez. Azkenik, euskal gizartean lurraldetasunari buruz nagusi diren iritziak partekatzen ote dituzten egiaztatu dugu, eta baita iritzi horiek alderdi eta gazte erakunde abertzaleen diskurtsoaren eta estrategiaren eraketan duten eragina ikusi ere.

Ikerketa hau Subiranotasuna Europako Herrietan Masterrean egindako Master Amaierako Lana da, 2024ko urrian aurkeztua eta defendatua.

9.- Estatugintza eta sezesio-prozesuak

9.1- Sarrera. Presentation

Eki Etxebarria

State Building, Secession, and Territorial Politics

This section brings together a set of contributions that explore contemporary processes of state-building, secession, self-governance, and territorial mobilization from an interdisciplinary perspective in different geographical contexts like Catalonia, Scotland, Faroe Islands and Flanders. Taken together, the papers challenge static understandings of secessionism and self-government demands by highlighting their meanings, trajectories and embeddedness in broader political, institutional, and cultural contexts.

Firstly, by examining the trajectories of governing nationalist parties in Catalonia and Scotland, Takan Çiftçi analyzes how stateless nationalist and regional political parties (re)construct the meanings of territorial goals. Territorial claims are often articulated through flexible framings. In these cases, the boundary between full rupture and enhanced self-government becomes blurred, especially as critical junctures such as independence referendums approach. Rather than presenting secession as a complete “rupture”, nationalist actors frequently reframe it as a continuation or deepening of existing autonomy arrangements, thereby broadening their appeal while navigating legal and political limits.

Secondly, in a similar vein to the previous paper, Daniel Cetrá examines the transformation of political discourse in Catalonia after the 2017 independence attempt until 2023, focusing on rhetorical strategies, affective registers and speech acts. Depolarization is a key concept, understood as a shift in affective distance between political camps. This process should be interpreted as a pragmatic recalibration of intergroup relations driven by institutional incentives.

Thirdly, the contribution of Matthias Scantamburlo, Felix Schulte and Maria Ackrén analyze the causal impact of “lost autonomy triggers” – sudden and symbolically charged events that can catalyze rapid shifts toward secessionist mobilization –, focusing on two cases: the 1992 Great Bank Affair in the Faroe Islands and the 2010 Spanish Constitutional Court decision to reform Catalonia’s autonomy statute. This research underscores the importance of proximate causes and political perception in explaining why secessionist waves emerge.

Fourthly, Onur Isci traces the long-term ideological transformation of the Scottish National Party, showing how its gradual consolidation around a left-of-centre, social-democratic orientation reshaped both the party’s identity and the broader independence movement. This analysis highlights the interplay between ideological realignment and the construction of a distinct national identity.

Fifthly, beyond party politics, Pau Torres broadens its analytical lens to include geographical dimensions of territorial mobilization. Comparative research on island territories demonstrates that insularity is associated with higher levels of support for regionalist and secessionist parties, not merely due to material grievances but also because of distinctive identity-formation processes due to isolation.
Lastly, Michel Huysseune analyses the role of language and culture in the case of the Flemish movement, as a source of consensus but also conflict. In fact, the desire to high culture in Dutch is divisive, following the traditional cleavage between Catholics and anti-clericals. Additionally, the author highlights how self-government has transformed its cultural aspirations and led to the demobilization of the Flemish movement and the polarization of public opinion.

Overall, the contributions in this section advance a nuanced understanding of secession and state-building as fluid and multi-dimensional processes. By integrating strategic, institutional, ideological, cultural, and affective perspectives, they move beyond reductionist accounts and offer richer insights into how territorial politics are constructed, contested, and transformed in contemporary Europe and beyond.

9.2- Making the meaning of secession: the Scottish and Catalan cases prior to the independence referendums

Atakan Çiftçi

Making the meaning of secession: the Scottish and Catalan cases prior to the independence referendums

What do stateless nationalist and regionalist parties (SNRPs) understand by secession and autonomy, or more broadly, self-governance? Are these concepts fixed and homogeneous or are they subject to either abrupt or gradual changes? How do these concepts or strategies take shape during critical junctures? By raising these questions, this study explores the meaning-making processes of self-government goals in Catalonia and Scotland. Focusing on the changing territorial strategies of Democratic Convergence of Catalonia (Convèrgencia Democràtica de Catalunya, CDC) and the Scottish National Party (SNP), two mainstream and governing nationalist parties in their respective entities, it invites to interrogate the very meaning of secessionism, in terms of a territorial strategy, based on the independence attempts of these parties via referendums.

In Scotland, an independence referendum was held on September, 18, 2014 by the devolved government led by the SNP. Despite the victory of the pro-union stance, a significant 44.7% of voters supported independence in a referendum that saw an exceptionally high turnout of 84.59%. Moreover, in the general and Scottish parliament elections held after the referendum, the SNP succeeded to increase its vote share and continued to govern the devolved administration.

Unlike Scotland, in Catalonia, the Spanish central government refused to grant permission for the autonomous government to hold an official and binding independence referendum. Without the approval from the central government, the pro-independence Catalan government, led by CDC in coalition with the Republican Left of Catalonia (Esquerra Republicana de Catalunya, ERC), decided to unilaterally organize a referendum on October 1, 2017. Despite the Spanish government's attempts to block the vote through police intervention, turnout reached 43 percent of the electorate, and over two million ballots (90 percent of those cast) favored independence. Following the unilateral referendum and the subsequent declaration of an independent Catalan Republic, the central government, with the endorsement of the Constitutional Court, announced the dissolution of the Catalan government and parliament. However, in the snap elections held after the dissolution, secessionist parties managed to retain their majority in the Catalan parliament and succeeded in forming a new government.

Beyond these two cases, the growing influence of SNRPs in party politics and the rise of secessionism on a global scale have made self-governance strategies an increasingly relevant topic in the study of territorial politics and stateless nationalism. However, the Catalan and Scottish cases hold a special place in advancing this research, as the governing parties in both went beyond rhetorical commitments and took radical, tangible steps toward independence by organizing referendums. Moreover, the fact that these independence initiatives were led by relatively moderate and mainstream parties within the SNRP family makes these two cases even more puzzling.

Scholars have largely treated self-governance strategies as constant and homogeneous. However, a closer examination of the territorial strategies of SNRPs reveals that these goals are far more dynamic and variable than commonly assumed. This finding compels us to reconsider one-dimensional, reductionist approaches to SNRP strategy. Accordingly, drawing on interpretative approaches to institutional change, this study investigates how political actors themselves (re)construct the meaning of territorial goals, rather than presuming these concepts have static or universally agreed definitions. This perspective is reinforced by an emphasis on positional blurring in territorial strategies.

The analysis demonstrates that, as critical junctures (such as referendums) approach, SNRPs rationally blur the line between “rupture” (full independence) and “bargaining” (enhanced autonomy). Consequently, in both Catalonia and Scotland, the push for independence was reframed as an extension of self-governance rather than as a complete rupture. This framing allowed the parties to broaden their public appeal while navigating institutional constraints. This suggests a theoretical reframing: secession is not merely a radical end-goal but can serve as a “radical means to achieve moderate ends.”

This study employs process tracing and in-depth semi-structured interviews conducted in both countries. It investigates the nature of secessionism by exploring the tension between radicalism and moderation. Drawing on the literature on party politics and institutional change, it further analyzes the concept of positional blurring in territorial strategies. Building on this theoretical framework, the study examines how the leaderships of the CDC and SNP redefined their territorial strategies in the lead-up to the independence referendums, in response to competing conceptualizations of secessionism.

9.3- Words After the Storm: Party Rhetoric and the Limits of Depolarisation in Post-Secessionist Catalonia

Daniel Cetrá

Words After the Storm: Party Rhetoric and the Limits of Depolarisation in Post-Secessionist Catalonia.

What happens to sovereignty and to unionist claims after a failed secessionist bid? This paper explores the transformation of political discourse in Catalonia following the 2017 independence attempt, examining how imaginaries of national belonging and political legitimacy are renegotiated. We analyse how Catalan political parties articulated the national question between 2017 and 2023, with particular attention to rhetorical strategies, affective registers, and speech acts.

Depolarisation is conceptualised not merely as rhetorical moderation, but as a shift in affective distance between political camps—a recalibration of antagonism that opens (or forecloses) space for emergent forms of coexistence. Using sentiment analysis of social media and the Thomas-Kilmann conflict resolution model, we trace persistent polarising rhetoric alongside modest movements toward discursive détente, led notably by the anti-independence PSC and the pro-independence ERC, both incentivised by political interdependence.

Our findings suggest that discursive depolarisation does not represent a linear resolution of conflict, but rather a pragmatic recalibration of intergroup relations driven by institutional incentives. It reflects a shift away from zero-sum imaginaries of sovereignty toward more contingent and negotiated forms of political coexistence—fragile, reversible, but politically significant.

Keywords: sovereignty; depolarisation; nationalism; Catalonia; discourse

9.4- Schulte eta Ackrén: Lost Autonomy Triggers and the Rise of Secessionism

Matthias Scantamburlo

Schulte eta Ackrén: Lost Autonomy Triggers and the Rise of Secessionism.

While secessionist movements have surged globally over the past century, the prevailing structuralist and institutionalist approaches inadequately capture the dynamics of secessionism. We argue that lost autonomy triggers, sudden transformative events symbolizing a loss of autonomy for ethnic minorities, can be profoundly disruptive, eliciting pro-secessionist backlashes. Despite their significance, the causal impact of such triggering events remains underexplored. We investigate two typical cases: the 1992 Great Bank Affair in the Faroe Islands and the 2010 Spanish Constitutional Court decision to reform Catalonia's autonomy statute. Using Synthetic Control Models, we demonstrate that these triggering events were essential for the subsequent secessionist waves, which would not have occurred otherwise. Qualitative process tracing analyses further support our findings, indicating that these events were perceived as highly disruptive, causing significant shifts in public opinion and prompting political responses. Our findings underscore the importance of recognizing lost autonomy triggers as proximate causes of secessionism.

9.5- The SNP's Ideological Transformation and Its Impact on the Scottish Independence Movement

Onur Isci

The SNP's Ideological Transformation and Its Impact on the Scottish Independence Movement.

Since the 1980s, the Scottish National Party (SNP) has distinguished itself among Europe's sub-state nationalist parties by embracing a clearly articulated left-of-centre political ideology. Yet this positioning does not fully align with the early history of Scotland's national movement. Between the emergence of the modern movement in the 1930s—initially backed by only marginal support—and the late 1970s, the SNP refrained from anchoring itself to any singular ideology. Instead, it presented itself as a "third way" between the UK's Labour and Conservative parties, arguing that neither mainstream party genuinely represented Scotland's interests and that only the SNP existed solely for Scotland.

The failure of the 1979 devolution referendum—undermined by low turnout requirements—proved a watershed moment for both the party and the wider independence movement. Internally, new left-of-centre factions coalesced around the "79 Group," while externally the harsh neoliberal policies of the Thatcher era heightened Scottish grievances and sharpened the SNP's critique of Westminster.

This paper examines how and why the SNP institutionalized a socialist-tinged discourse into its official party ideology and assesses the effect of this shift on Scotland's independence campaign. Drawing primarily on articles from 79 Group News, the group's 1980s newsletter, and on speeches and interviews given by key party figures—most notably Alex Salmond—in the 1990s and beyond, it traces the discursive evolution that underpinned the SNP's repositioning. In doing so, the study sheds light on the interplay between ideological realignment and the construction of a distinct Scottish national identity, contributing to our broader understanding of identity, territoriality, and state-building in stateless nationalisms.

9.6- Claiming the isle? Islandness, identity and territorial demands

Pau Torres

Claiming the isle? Islandness, identity and territorial demands

This article explores the relationship between insularity and territorial demands, focusing on whether insular territories are more likely to support regionalist and secessionist parties. To address this question, we compare electoral support for such parties across island and mainland territories using a large-N dataset. Additionally, we explore explanatory logics grounded in the literature on nationalism to better understand the drivers of these patterns.

Our findings indicate that insular territories consistently display higher levels of support for regionalist and secessionist platforms. This trend is not solely attributable to shared grievances but is also shaped by distinct identity formation processes fostered by geographical isolation. By examining how islandness interacts with territorial demands, this study offers new insights into the political relevance of insularity and contributes to the broader literature on subnational mobilization and territorial autonomy.

9.7- Exploring the role of language and culture in the flemish movement

Michel Huysseune

Exploring the role of language and culture in the flemish movement

